

# **BURGOSKO EUSKARA**

## **Hiztegi txikia**

**Aitor Arana**

# **Aurkibidea**

Eskaintza...

Kokapen mapa...

Hitzaurrea...

Ikurrak eta laburdurak...

Burgosko euskara - Euskara batua hiztegia...

Euskara batua - Burgosko euskara hiztegia...

# Eskaintza

Urteetan Nafarroa Garaian euskara galdu zuten ibarretako euskararen hiztegiak eta tarteka ikasliburuak idazten jardutean, langai izandako materialen artean ezinbestean erabili ditut ibar horietako gaztelanian gorde diren euskal hitzen zerrendak, hau da, «hondarreko euskara».

Halakoetan zenbait aldiz etorri zait burura gure ama M<sup>a</sup> Pilar zenak ere —Burgoskoa izanagatik— euskal hitzak zeuzkala bere gaztelanian. Ama hemezortzi urte zituela etorri zen Burgostik Euskal Herrira bizitzera, gure aitona zenak familia hona ekarrita, aitona lanbidez Renfeko orratz-zaina izanik Zumarragara destinatu zutelako.

Gogoan dut nerabezaroan —euskaltzaletu nintzenean— aitarekin euskarari buruzko elkarrizketa asko izaten nituela: aitari esker gu txikitandik euskaldunak izan gara, eta nire esker ona behin baino gehiagotan adierazi diot Legazpin euskararentzako galera urteak izan ziren 1960 eta 70eko urte ilun haietan, emazte erdalduna izanik ere, seme-alabok euskaldun hezi gintuelako.

Amarekin ere, euskarari buruzko solasalditxoak izaten nituen, izan ere, arestian esan bezala, txikitako bere gaztelanian euskal hitzak erabiltzen zituen, bera ohartu gabe. Nire anaia Jesusmari eta biok oroitzen gara honelako esaldiak esaten zituela noizean behin: «Llevában la *cherejana* al cerdo» edo «Ibamos al monte a por *mochas*». Nik amari esaten nion hitz horiek —*cherejana* = txerrijana, *mocha* = motza— euskarazkoak zirela, eta emakumea harritu egiten zen.

Amak, ezkon-eraztunaz gain, beti jantzi ohi zuen bere deituraren armarria zeukan eraztun bat, ni txikia nintzenean ikusgarria iruditzen zitzaidana, handia begitantzen zitzaidalako. *Luzuriaga* da gure amaren deitura. Inoiz ez nion galdetu zergatik —edo ez dut gogoratzen behintzat—, baina amak atxikimendu handia zion familiaren deiturari. Aitak aspaldi esana zion Luzuriaga deiturak «Lur zuria dagoen lekua» esan nahi duela, eta amari deigarria egiten zitzaion «bere» deituraren esanahia «berea ez zen» hizkuntzari esker jakin izana.

Gogoeta hauek guztiek, ama zenaren hizkuntz-oroitzapenen eskutik eta hondarreko euskararen bidetik, Euskal Herritik irtetera eraman naute eta hiztegi txiki hau maitasun handiz egitera, burgostarren kultur ondarea den euskara interesa duen edonoren eskuetan egon dadin.

Gure ama zenari eskaintzen diot, beraz, nire lan txiki hau, maitasunez.

Aitor Arana Luzuriaga  
Azpeitian, 2020ko udaberrian

(((( KOKAPEN MAPA))))

Marra gorriz, euskararen muga Burgosen IX.-X. mendeetan.

Marra urdinez, euskararen muga 1863an.

(Ikus azalean koloretako mapa)

Iturria: R. Menéndez Pidal, *Orígenes del español*, 1956 [4. arg.]

# Hitzaurrea

## **1. Burgos**

Burgos Gaztelako probintzia da, mendebaldean Euskal Herria mugakide duena (Bizkaia eta Araba). Izen bereko Burgos hiria du hiriburua. Kantabriar mendikateko hegotik Dueroko haranetara zabaltzen da. Nekazaritzan, zerealak, mahatsondoak, erremolatxa eta alpapa ekoizten dira. Industria Burgos, Aranda de Duero eta Miranda de Ebro hirietan biltzen da. Harrikatza eta gatz hobiak daude. 1029an Nafarroako Antso Nagusiak Burgosko konderria eskuratu zuen. Historian zehar beti Gaztelarekin loturik egon da. Gaur egun Gaztela eta Leon izeneko autonomia erkidegoan dago.

## **2. Burgosko euskararen egoera Erdi Aroan eta gaur egun**

Azken ehun urteotan eztabaida handiak izan dira euskaldunon artean, Burgosko euskara erromatarren etorrera baino lehenagotik bertan hitz egiten ote zen, ala Erdi Aroan gaur egungo Hego Euskal Herritik hara joandako euskaldunek eraman ote zuten. Gu ez gara eztabaida horretan sartuko. Interesgarria iruditu zaigu, hori bai, Luis Mari Mujikaren (ikus Mujika hitzaurre honetako 5. puntuan) hitzak hona ekartzea (itzulpena gurea da):

*Gaztela burgostarrea gutxi gorabehera 1150 euskal leku izen ikustean, berehala sortzen da euskaldunak inguru horretan noiz kokatu ote ziren jakiteko gogo. Kontu horren inguruko jarrera batzuk ezagunak dira. Menendez Pidalak, Caro Barojak eta Merino Urrutiak berak, antza, biztanle euskaldunak antzinatean —hau da, gutxienez erromatar konkistaren garaian— jadanik han izango zirela dioten bitartean, beste batzuek, hala nola Perez de Urbelek (hasieran), Ig. Ormaetxeberriak eta L. Mitxelena filologoak (itzulinguruak eginez) gehiago pentsatu dute euskara berandu samar txertatuko zela Burgos aldean, iparreko kristauek Erdi Aroan hegoaldera egotzitako arabiarrei lurra birkonkistatu bitartean. Guk, denbora luzean, hipotesi horren alde egin dugu, baina gaur aintzat hartzeko modukoa iruditzen zaigu autrigoien eskualdeko biztanle talde jakin batzuek berezko euskal hiztunak izango zituztela dioen hipotesia. [...] Horrez gain, «ondoren» birpopulaketa bat izan zitekeen, IX. eta X. mende inguruan, ziurrenik mendebaldeko Araba karistiarretik joandako jende nagusiki euskaldunak eragina.*

Luis Mari Mujika, 1992, 2. eta 4. or.

Luis Mari Mujikaren iritzia, azken batean, bat dator Eduardo Aznarrek Errioxako euskarari buruz duenarekin (Ikus *Errioxako euskara* hiztegi hitzaurrea).

Gaur egun, badira burgostar euskaldunak. Heldu euskaldunberriak ez dira gutxi. Ehunka edo milaka izan litezke: ez dugu aurkitu Gaztela-Leongo gobernuak egindako euskaldun kopururik erakusten duen inkesta soziolinguistikorik. Guk batez ere Enkarterriko ikastetxeetan hitz egin ahal izan dugu euskaldun burgostarrek, euren ikasle garaian.

### 3. Burgosko euskararen ezaugarri batzuk

Burgosko euskarazko lekukotasun idatzi gutxi geratu zaizkigu: toponimia, eta Erdi Aroko antroponimia pixka bat. Eta gaur arte heldu diren ahozko lekukotasun bakanak —hitz solteak— Burgosko gaztelanian gorderik heldu zaizkigu. Horrek, jakina, hitzak desitxuratu ahal izan ditu, lehenik euskaratik gaztelaniara igarotzean, eta gero gaztelanian bertan, mendeen joanean.

Jatorrizko hiztunik gabe eta testu idatzi luzerik gabe, ezinezkoa da euskara burgostarraren deskribapen sakona egitea, baina dauzkagun hondarrek zantzu batzuk erakusten dituzte. Arestian esan dugun bezala, Burgos probintzia Euskal Herriaren mendebaldean dago eta, beraz, ez da harritzekoa bertako euskara mendebaldekoa edo “oso bizkaitarra” izatea. Dauden lekukotasun apurrak aztertuta, laster datorkigu burura bizkaiera: *amuna* (amona), *baltz* (beltz), *barri*, *urresti* (hurritziti), *uri* (hiri), *ibai*, *ira* (iratze, garo), *usasti* (isasti) etabar.

Burgosek, horrela, nagusiki mendebaldeko hiztegia erakusten du. Erdialdeko hitzen adibideak ere badauzka: *arte*, *atze*, *be* (behe)... Eta ekialdekoak edo iparraldekoak ere bai: *ene* (nire), *guti* (gutxi), *utar* (ota).

Hitz hasieran *j* daukaten lau hitz soilik agertu zaizkigu: *jai*z (haitz), *jan*, *jar* (zahar) eta *jirri* (zirri, arkorotz). Hasieran *x* daukan hitzik ez dugu aurkitu, eta hasierako *y* daukanik ere ez.

*A* eta *e* bokal protetikoei dagokienez, *e*-dun adibide bakarra azaldu zaigu: *erreka*, «errekaondo» toponimoan gorderik eta, gaztelaniaren eraginez, «recaondo» forman jasorik.

Hiztegian ikus daitekeenez, artikulua batzuetan bere aurreko bokalaren palatalizazioa eragiten du: *be* > *bia* (behea), *kanpo* > *kanpua* eta *luze* > *luzia*.

Burgosko toponimian *u* > *o* bilakaera ikus daiteke «gurutze» hitzean: *kurutze* > *korotze* edo *kurtze* > *krotze*. Errioxan, aldiz, *korotze* & *krotze* baizik ez dira azaldu, baina *o* > *u* bilakaeraren lekukotasun bat ikus daiteke «gorosti» hitzean: *gorosti* > *gurusti*.

Leku genitiboaren (edo *nongo* kasuaren) adibide batzuk ere ikus daitezke. Zenbaitetan *-ko* atzizkia *-koa* mantentzen da artikuluekin, eta beste zenbaitetan *-kua* bihurtzen da: *aran* + *ko* + *a* > *arangua* (haranekoa), *Bitxar* + *ko* + *a* > *Bitxarkua*.

Hatxe hasperenduak ere izan ziren Burgosen, idatzirik dauzkagun leku izenetan zenbait aldiz jaso baita soinu hori *h* letra idatzita. Hiztegian zehar, hainbat adibide ikusiko dugu han-hemenka: *harana*, *hederra*... Baina joera nagusia hatxerik gabe idaztea zen.

Aipagarria da *aita* hitzaren *eita* aldaera, Oskan ere dokumentaturik dagoena. Koldo Mitxelenak aspaldi adierazi zuen (1953, *Apellidos vascos*, 37. or.) *eita* bereziki Gaztelako agirietan ageri dela, eta bertan gerora *eita* > *echa* bilakaera izan zuela.

### 4. Hiztegia egiteko erabakiak. Grafia eguneratua

Burgosko gaztelanian gordetako euskal hitzak eta erdal grafiaz idatzitako toponimoak hiztegi honetara ekartzeko, haien grafia eguneratu behar izan dugu eta, horretarako, honela jokatu dugu: *c* (*a*, *o*, *u*) > *k*, *c* (*e*, *i*) > *z*, *qu* > *k*, *ch* > *tx*, *gu* (*e*, *i*) > *g* (*e*, *i*), *g* (*e*, *i*) > *j* (*e*, *i*), *mb* > *nb* eta *mp* > *np*.

#### 4. 1. Parentesien erabilera

Bilduma honetako gainerako hiztegieta bezala, bitariko parentesiak erabili dira hemen: ( ) eta [ ]. Ohiko parentesien artean ematen dena — ( ) artean, alegia— ondoko hauxe da. Hitz bakoitzaren iturriak: (2, 4, 5, 8). Hitzak zein gaitakoak diren: (*anat.*), (*nek.*). Eta euskalkiko hitz bakoitzari euskara batuan emandako ordainean ongi datozkeen argibideak: **abar** (3, 4, 6) : abar (adartxoa). Sarreretan, hitza osatu beharra izan denean: *baser(ri)* baserri, *dindea(tu)* zintzilikatu.

Adibideetan *claudator* delako parentesia ageri denean — [ ], alegia—, testuetako zerbait ukitu edo ustez zuzendu egin dugula esan nahi du: [*a*]ginaldaia, [*i*]turaldea, etabar.

#### 4. 2. Hiztegi honen erabilera

Erabilera errazeko hiztegia da hau. Bi kontsulta modu ditu:

1) Lehenengo aldeko hitzak edo sarrerak Burgosko euskaraz daude, beren ordaina euskara batuan dutela. Aurkitu direnean, adibideak jarri zaizkie hitzei.

2) Zerbait Burgosko euskaraz nola esaten den jakiteko, berriz, hiztegiaren bigarren zatira joko dugu, hor euskara batuaren bidez kontsulta baitaiteke. Zati horretan hitza eta euskalkiko haren ordaina besterik ez dugu aurkituko, gaia (*anat.*, *nek.*, *zoo.*) ondoan ageri dela, jarrita dagoenean. Informazio osatuena eskuratu ahal izateko, komenigarria da kontsulta beti lehen aldean bukatzea, hitzen adibideak lehen zatian ageri direlako.

Bestalde, hiztegiko oharretan (OH.), adibidez, «Ikus Mujika 111» irakurtzen badugu, horrek esan nahi du 5. puntuko bibliografiako Mujikaren idazlanaren orrialde horretan informazio gehiago aurkituko dugula kontsultagai dugun sarreraz.

#### 5. Hiztegiaren iturrien bibliografia

Jarraian, hiztegia egiteko erabili diren testuen berri emango dugu. Ikus daitekeen bezala, sei iturri dira. Denera 270 hitz edo sarrera bideratu dizkigute iturriok.

##### 1) J. Bautista MERINO URRUTIA

— 1962, *El vascuence en la Rioja y Burgos*, Monografías vascongadas bilduma, Donostia.

Iturri honek 107 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 28 berak bakarrik dakartza.

##### 2) Eduardo AZNAR

— 2017, *Tierras, gente y voces. El legado del euskera riojano* (Burgosko atala), Pamiela, Iruñea.

Iturri honek 158 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 71 berak bakarrik dakartza.

##### 3) David PATERSON

— 2012 (?), *Antroponimia vasca en la Castilla condal (siglo X)*, dialnet.unirioja.es

Iturri honek 20 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 11 berak bakarrik dakartza.

##### 4) Luis Mari MUJIKA

— 1992, *El euskara en la toponimia de Burgos (Nuevos testimonios)*. Non: Omenaldia Luis Villasanteri, IKER 6, 311-347 Bilbo.

Iturri honek 102 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 29 berak bakarrik dakartza.

## 5) HAINBAT EGILE

Fernando GONZALEZ

— 1964, *El habla de La Bureba*, «Miguel de Cervantes» Institutua, Madril.

M<sup>a</sup> Pilar LUZURIAGA

— 1985, Elkarrizketa pertsonalean.

Rufino GOMEZ VILLAR

— 2020, Tiron ibaiaren haraneko euskal jatorriko edo euskal itxurako hitzak, elkarrizketa pertsonalean emanak.

Iturri honek 32 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 28 berak bakarrik dakartza.

## 6) María de las Nieves SANCHEZ GONZALEZ DE HERRERO

— 2014, *Estudio lingüístico de la documentación medieval mirandesa*, [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org)

Iturri honek 13 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 4 berak bakarrik dakartza.

## 6. Toponimia, arlo irristakorra

Bosgarren puntuan argi ikusten denez, Burgosko hiztegia batez ere toponimian oinarritua da. Nafarroa Garaiko hiztegiak egin ditugunean ere adierazi izan dugu toponimia ez dela, beharbada, iturririk egokiena hiztegi gintzarako, zalantzazko leku izenak ez direlako gutxi izaten; haietako asko esanahi ilunekoak izaten dira, ulergaitzak. Arlo horretan lanean dabilzan egileen artean, gainera, kontraesanak ikusi ditugu zenbaitetan.

Toponimia gabe, ordea, hiztegi hau egiterik ez zen izango, Burgosko euskararen hitz jario handiena iturri horretatik dator eta. Interpretazio zailekoak iruditu zaizkigun leku izenak EZ ditugu erabili, eta gardenak iruditu zaizkigunei utzi diegu lekua, adituek —edo adituren batek— esanahia argitu dietenekin batera. Beharrezko iritzi diogunean, informazio gehiago nahi duen irakurlea egileen jatorrizko lanetara bidali dugu, OH. (oharra) laburduraren bidez.

Bestetik, toponimian jasotako *ago*, *bizkar*, *bular*, *gibel*, *sabel* eta antzeko hitzak, toponimian berez ezaugarri geografikoei loturik daudenak, jatorriz anatomiar zegozkiola iritzi diogu. Horregatik, hitz multzo hori *geografia* gaiak markatzeaz gain, *anatomia* gaiak ere markatu dugu. Eta toponimian «txikia» esan nahi duen *guti* hitzari, «gutxi» hitzaren parekidetasuna ere eman diogu.

Jakitun gara toponimiaren arloan gu ere irristatu egingo ginela. Barka bitza irakurleak gure akatsak. Hau, ordea, ez da toponimia argitzeko idazlana, toponimian aurkitu diren hitzak irakurlearen eskuetan jartzeko hiztegia baizik.

Irakurleak hiztegi honetako hitz bat toponimiatik hartuta dagoen ala ez jakin nahi izanez gero, 5. puntuko iturrien bibliografiara jo besterik ez du, hitz sarreretan ageri diren iturri-zenbakien bidez.

## 7. Diakronia gure hiztegian

Bestetik, gogoan izan behar da duela ehunka urte desagertatuko hizkuntza baten edo hizkuntza aldaera baten lekukotasunak ez direla beti garai berekoak izaten, baizik eta mende desberdinetan jasota geratu diren hitzak edo esaldiak izan ohi direla.

Horrela, Zaraitzuko euskararen hiztegia, adibidez, gorde diren XIX. eta XX. mendeetako testu idatzirik gabe eta XX. eta XXI. mendeetako azken hitzunen ekarpena gabe egin balitz, hiztegi horren itxura orain duenaren oso desberdina izango zen, iturri nagusia mende horien aurreko toponimia izango zelako, hau da, euskalki horretan ia sinkoparik ez zegoen garaikoa (Zaraitzueraren ezaugarriarik nabarmenetako bat sinkopak dira).



Zuhurtziak diosku ez dugula pentsatu behar Burgosko euskara galdu ez balitz, hiztegi honetan ageri dena bezalakoxea izango zenik. Ziur aski, Zaraitzun bezala, XV. mendeko Burgosko euskara, eta XXI. mendekoa aski desberdinak izango ziren.

Aldiz, lasai baieza daiteke hiztegi honetan dauden Burgosko euskararen lekukotasunak garai jakinetako argazki zaharrak direla, zuri-beltzeko argazki hautsezatuak. Baina hango argazkiak.

Irakurleak iturri bakoitza zein garaitakoa den jakin nahi izanez gero, 5. puntuko iturrien bibliografiara jo besterik ez du, hitz sarreretan ageri diren iturri-zenbakien bidez.

### **8. *Esker onez***

Burgosko hiztegia nire anaia Jesusmari Arana Luzuriagaren laguntzarekin argitaratu da. Anes Arruti lan informatikoan jardun da berriz ere laguntzaile. Koldo Colomo adiskideak prestutasun handiz bilatu eta bideratu ditu lanerako behar izan ditugun materialak. Rufino Gómez gogaide burgostarrak Tiron ibaiaren inguruetako hitzak eskuratu dizkigu.

Esker mila guztiei, zintzoki.

Aitor Arana  
Azpeitian, 2020ko udaberrian

## Ikurrak eta laburdurak

( )	1. Sarreretan, hitza osatzeko erabili da. 2. Itzulpenetan, gehigarriak eta argibideak.
[ ]	Adibideetan, zuzendu edo osatu nahian erantsi dena.
(?)	Ziurtasunik gabekoa.
{Z}	Zalantzazkoa.
;	Hitz batek ondokoarekiko antz handia duenean, baina ez esanahi berbera.
:	Adibide amaiera eta batuaz emandako ordainaren hasiera.
/	Adibide hasiera.
>	1. Adibidea jarraian dator. 2. Hitz bat aurrekoaren eratorria da.
=	Baliokideak dira, esanahi bera dute.

adj.	Adjektiboa
adb.	Adberbioa
adib.	Adibidea
alb.	Albaitaritza
anat.	Anatomia
astr.	Astronomia
bot.	Botanika
ekon.	Ekonomia
erai.	Eraikuntza, eraikinak
erl.	Erljioa
geog.	Geografia
gram.	Gramatika
haur.	Haur-hizkera
heg.	Hegaztiak
hist.	Historia
hizk.	Hizkuntzalaritza
its.	Itsas kontuak
jos.	Jostailuak
kim.	Kimika
kir.	Kirola
lag.	Lagunartekoa
med.	Medikuntza
met.	Meteorologia
meta.	Metalak
mil.	Milizia
min.	Mineralogia
mit.	Mitologia
mus.	Musika

nek.	Nekazaritza
OH.	Oharra.
oih.	Oihalgintza
psk.	Psikologia
suk.	Sukaldaritza
tek.	Teknika
zoo.	Zoologia
zuz.	Zuzenbidea